

Euskal lankidetzaren garapenaren nazioarteko testuinguru berria: azterketa eta proposamenak tresnen markoari, agenteei, eta partaidetzako eta elkarrizketako guneei dagokienez azterlanaren laburpen exekutiboa

1. Testuinguru global bat eraldatzen: inplikazioak garapen-agendarako eta lankidetzapolitiketarako

Mundua eraldaketa-prozesu konplexu batean murgilduta dago errealitatearen interdependentzia eta transnazioalizazio gero eta handiagoaren ondorioz, eta garapenaren arazoak larriagotzen ari dira eta mehatxu ugari sortu zaizkio bizitzaren eta planetaren jasangarritasunari. Eta arazo eta mehatxu horien artean ditugu klima-aldaketa, biodibertsitate-galera, desperekotasuna, kalteberatasuna edo giza eskubideen urraketa.

Arazo eta mehatxu horien larritasunak eta izaera global eta gero eta interdependenteagoak nazioarteko gizarte osoa hartzen du eraginpean, baita politika guztiak —ez lankidetzapolitikak soilik— eta hainbat gizarte-eragile eta eragile politiko ere —ez lankidetzakoak soilik—, intentsitate desberdinekin eta erantzukizun-maila desberdinekin bada ere. Horrek guztiak larriagotzen eta kronifikatzen diren arazoei zorroztasunez eta indarrez erantzuteko erronka planteatzen du. Baina aldi berean, bizikidetzaren globaleko ereduak eraldatzen laguntzen du, hots, asimetriak eta garapenaren arazoak erreproduzitzen, sendotzen eta areagotzen dituen eredu globala.

Testuinguru horretan onartu zen 2015eko irailean, Nazio Batuen Batzar Nagusian, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda. Aukera politiko garrantzitsua da agenda hori planteatutako erronketarako egokiagoa den erantzun bat lotzeko; dena den, agenda irakurtzeko, interpretatzeko, onartzeko eta ezartzeko moduaren baitan dago hori, neurri handi batean.

Agenda zabala da 2030 Agenda, gai ugari biltzea ahalbidetzen duena eta maila anitzeko azterketa proposatzen duena, baita azterketa hori eskatzen duena ere, aldi berean. Muga nabarmenak dituen proposamena da, batez ere izaera sistemikoko zenbait elementu aztertzeke lotsati jotzea, gobernantzari buruz duen ikuskera ahula, edo borondatezkoa izatea. Baina giza garapena eta garapen iraunkorra defendatzeko eta sustatzeko aukera garrantzitsuak zabaltzen dituen agenda ere bada, eta elementu horiek ez zeuden bilduta aurreko garapeneko nazioarteko agendan.

Aukera nagusia 2030 Agenda prozesu irekia izatetik dator, ekintza-markoa zabaltzea ahalbidetzen baitu agendaren beraren interpretazio kritiko eta estentsiboaren ildotik. Horrenbestez, ez da ez agenda itxi bat, ez dokumentu tekniko bat, baizik eta guneak zabal ditzakeen prozesu bat, betiere giza garapenaren eta garapen jasangarriaren ildotik, politikak definitzeko, beren arteko elkarrizketarako eta nazioarteko, estatuko, eskualdeko eta herriko agendak eraikitzeko. Horrenbestez, aukera politikoko testuingurua zabaltzen duen agenda da,

eta aukera hori aprobetxatzeak agenda unibertsaltasunean eta bere izaera integralean oinarrituta, eta maila anitzeko logika batetik begiratuta irakurtzea eskatzen du:

- Irakurketa unibertsal bat, “Ipar-Hego” begirada tradizionala gaituzko duena, jabetu ahal izateko hainbat arazo —hala nola desparekotasuna, klima-aldaketa, kalteberatasuna edo bazterkeria— nazioarteko ordena asimetrikoa eta produkzio eta kontsumo jasanezineko eredu dominatzailea ezaugarritzat dituen bizikidetzak globaleko egungo ereduak sortutakoak direla. Horrenbestez, herrialde guztiak hartzen ditu eraginpean agenda horrek, garapen-eredu propioa berrikustea eskatuz, eta gizarte- eta ingurumen-kostu gisa dituen inkoherentziei ere aurre egin beharko die, tokian toki zein globalki.
- Irakurketa integral horrek beharrezko koherentzia eskatzen du politiken giza garapenarekin eta garapen iraunkorarekin, eta ekintza globaleko eremuekin, tradizionalki giza garapena eta garapen iraunkorra bere helburuen zatitza ikusi ez dituzten eremuekin.
- Maila anitzeko logika batetik egindako irakurketa agenda horren potentzial estrategikoa handitzeko, tokian tokioa eta globala errealitate “transnacionalizatu” beraren eremu interdependenteak baitira. Horrela, beharrezkoa da interpretazio-esparruan eta kontakizunaren eraikuntzan eragile ez-estatalak eta tokian toki artikulatutako gizarte zibila egotea.

Horrenbestez, hiru funtsezko elementu dira agenda bera zabaltzeko gai izango den interpretazio baterako, baita agendak dakarren aukera politikoa praktikara eramateko gai ere.

Aldaketa sakonen nazioarteko testuinguruak eta 2030 Agendak —agenda horrek dakarren aukerak— inplikazio garrantzitsuak dituzte lankidetzak-politiketarako, haiek agententzat eta nazioarteko lankidetzak-sistemarako oro har. Nazioarteko lankidetzak, ildo horretan, funtsezko zeregina izango du ekintza kolektibo global baten artikulazioan. Zeregin horrek, aldi berean, nazioarteko sistemako lankidetzaren ikuspegi politikoago eta sistematikoagoetara zabaltzea eskatzen du, eta horrek lotura esplizitua behar du lankidetzak-politikaren eta giza garapen eta garapen jasangarriarako politiken artean.

Deskribatutako nazioarteko testuinguruak eta 2030 Agendak irekitako aukera politikoak zenbait inplikazio garrantzitsu dituzte euskal lankidetzarako, hala nola bere helburuak berrikusi beharra, garapenaren arazoei erantzuten jarraitzeaz gain, bere ikuspuntua zabaltzeko eta estrategia integral eta koherenteagoak hartzeko eta bultzatzeko, arazo horiek sortzen dituen bizikidetzak globaleko eremuan eragiten dutenak. Horretarako, euskal lankidetzak bere lankidetzak diseinatze eta egikaritzeko erabiltzen dituen funtsezko elementuen arteko zenbait berrikusi beharko ditu.

Horrenbestez, euskal lankidetzak birpentsatu behar da ekarpen handiagoa egin dezan garapenaren arazoei eman beharreko erantzunean, eraldaketa sakonak eta estrukturalak

lortzeko. Izan ere, aspaldi samarretik euskal lankidetzan ageri den premia da hori, eta nazioarteko testuinguruko aldaketek eta 2010 Agendak irekitako aukera nabarmendu egiten dute. Horretarako, eremu horretan dauden zenbait debate berriz hartu, aztertu eta sakontzen dira, nazioarteko testuinguruan izandako aldaketek eraginpean gehien hartzen dituztenak.

2. Euskal lankidetzaren ereduari buruzko debateak

Hainbat dira nazioarteko testuinguruko aldaketek zuzenean eraginpean hartutako debate estrategikoak, lankidetzaren ereduaren definitzeko lagungarriak izateaz gain, aldaketa horien aurrean posizionamendu propio, irmo eta kritiko bat artikulatzeko ere lagungarriak izan daitezkeenak. Debateak euskal lankidetzari buruz, plangintzari buruz, parte-hartzeari buruz, finantzaketatresnei buruz, gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruz eta garapenerako politiken koherentziari buruz.

Lankidetzaren agenteei buruzko debatea

Azken aldian indartu egin da euskal lankidetzaren agenteei buruzko debatea lankidetzako agente eta politiken eta gizarte zibileko beste agente batzuen artean ezarritako lotura gero eta handiagoaren eskutik, beste agente horien artean mugimendu eta erakunde sozialak edo unibertsitatea bera daudelarik, besteak beste. Tradizionalki, debate errektiboa izan da hori, lankidetzaren agentetzat zein eragile hartu ahal ziren eta hartu behar ziren definitzera eta mugatzera oso zuzendutako debatea, eta, gainera, lankidetzaren agenteen ideia baliabide ekonomikoak kudeatzeko gaitasunarekin lotuta.

Debate-marko horrek euskal lankidetzaren agenteen eta haien gaitasunen mapa zehaztu du. Rol protagonista eman die GGKEei garapenerako lankidetzaren politikan, lankidetzaren politika bultzatuz ahalbidetu duen rola, eta sektorearen garapen garrantzitsua ekarri du eta sare asoziatiboa eta nazioarteko elkartasuneko euskal mugimendu soziala dinamizatu eta indartu du.

Agenteei buruzko debateari ekiteko modu hori, klabe errektiboan eta tresnen kudeaketan oso kontzentratua —batez ere finantzaketarekin lotutako tresnen kudeaketan—, sortu diren gaitasun moten faktore erabakigarria izan da; logikoki, tresnen marko hori kudeatzera eta ezartzera oso bideratuta egon dira gaitasun horiek eta, aldi berean, lankidetzaren politika sendo eta eraldaketa-gaitasun handia duen bat lortzeko ere beharrezkoak diren beste gaitasun batzuk garatzeko posibilitateak gutxitu ditu.

Egungo testuinguruan, konplexutasunak eta ekintza kolektibo, integral eta maila anitzeko batetik erantzunak artikulatzeko premiak markatuta, badirudi gero eta zentzu gutxiago duela debatea logika errektibo eta ondarezkotik ikusten jarraitzea, eta lankidetzaren esku-hartzeen kudeaketara mugatzen jarraitzea. Debatea murrizten eta lankidetzaren politika zabaltzeko aukerak gutxitzen dituzten aukerak dira. Gainera, gurea dugun debate honek ez dio eskusiboki eragiten lankidetzaren politikari, eta, aitzitik, errealtatearen interdependentsia eta transnatzionalizazioa kontuan izanda, ikuspegi zabal eta sektorearteko batetik planteatu behar da, politika guztiak eraginpean hartzen dituen gizarte-eredu global baten eraikuntzari dagokionez.

Ikuspegi horretatik, agenteei buruzko debatea zabaltzea hartu beharko litzateke kontuan, politika eta dagozkion erantzunak areagotzeko eta handiagotzeko. Zabaltze horrek ahalegin espezifikoa bat bildu beharko luke hainbat agente erakartzeko, gai izango direnak garapenaren arazoak sektoreartekotasunetik, interdependentziazetik eta ekintza kolektibo globaletik aztertzeko, baita errealitatea ulertzeko ezagutza handitzetik abiatuta aztertzeko ere. Koherentziaz, lankidetzaren politikan zeregin garrantzitsu bat izatera deituta dauden agenteetako batzuk, administrazio publikoekin eta Euskadiko GGKEekin batera, hirugarren sektoreko erakundeak, eskubide eta politika publikoen defentsarako plataforma, erakunde eta mugimendu sozialak, kolektibo ekologistak, feministak eta abar izan beharko lukete, besteak beste, eta bertan egon beharko lukete, halaber, kolektibo profesionalek, oinarri-erakundeek, jakintza-agenteei (unibertsitatea, esaterako) eta lankidetzaren euskal politikako beste erakunde eta administrazio batzuk. Gainera, debate eta eztabaidarako guneak gaineratzeaz gain, bertan egote horrek lankidetzaren politikaren ziklo osoan parte hartzea ere ahalbidetu beharko luke, agente bakoitzaren ezaugarri, interes eta gaitasunen arabera.

Plangintzari buruzko debatea

Euskal lankidetzak jakintza handia du metatuta plangintzaren arloan, bera garatu eta sendotzeko lagungarria izan dena, eta lankidetzaren politikaren egoerari buruzko diagnostiko kolektiboak egitea ahalbidetu du, baita elkarrizketa erkideak ere orientazio estrategiko nagusiak identifikatzeko eta ezartzeko. Plangintza hori eraginkorragoa izan da irizpide estrategikoei erantzuteko gai diren eta premia berriei egokitutako proposamenak biltzeko gai izan denean, nahiz eta horrek ez dituen sistematikoki bermatu burututako plan guztiak. Era berean, politika horretan parte hartu duten agenteen gaitasunak —azertu beharreko gaiekin lotutakoak, zein elkarrizketa politikoaren eta sareko lanarekin lotutakoak— sortzea bultzatu du. Azkenik, gobernuaren eta gizarte zibilaren arteko kontratua da plangintza, eta bertatik eratortzen dira konpromiso publikoak giza garapenarekin eta garapen jasangarriarekin lankidetzaren politikaren markoan, rol normatiboa jokatzuz aldi berean, eraldaketa-horizontea eta euskal gizarteak eta komunitate politikoak lortu nahi duen garapen-eredua marraztean.

Dena dela, potentzialitate eta ekarpen horiek ahuldu egiten dituzte euskal lankidetzako plangintza-prozesuak burutzen diren moduan presentzia duten elementu batzuk —nahiz eta guztiak ere nahitaez esklusiboki euskal lankidetzarenak ez izan—. Horrela, disoziazio bat ikus daiteke doktrina-markoaren eta marko instrumentalaren artean plangintza-dokumentuetan, diskurtso zabal batek eragindakoa, eraldaketa-joera argi batetik abiatuta eraikitakoa eta, bestalde, inertziak eta lankidetzaren sistemak hedatutako tresnek mugatutakoa, oro har zein, modu espezifikagoan, euskal kasuan. Disoziazio horren aurrean, politika estrategikoki orientatzeaz bainoago, plangintza-markoek azken batean beren agenteak egiten ari zirena onartzen, bereganatzen eta ofizialtzen aritu izan dira.

Finean, frustrazio-maila handia dakarten mugak dira plangintza-markoek ez badituzte arlo instrumental eta operatiboen aurrerapauso gehiago bultzatzen, Gobernuaren eta herritarren arteko kontratua ahultzen duten mugak, azken batean.

Parte-hartzeari buruzko debatea

Euskal lankidetzaren parte-hartze sozialeko maila handiko politika gisa eratu da, gizarte sozialeko erakundeen presentzia handia kontuan izanda, eta bereziki GGKEena. Hala eta guztiz ere, ondoriozko parte-hartze eredu argi eta garbi bideratu da izaera finalistako ekintzak ezartzera, lankidetzaren politikarako estrategikoak ere badiren beste eginkizun batzuen kaltetan.

Hori dela-eta, euskal lankidetzaren parte-hartze markoak berrikuspen sakona behar du, agenteei beren potentziala garatzea eta horrela lankidetzako euskal politika sendotzea ahalbidetuko diena. Testuinguru horretan, gai horrekin lotutako elementu nagusien (hala nola finantzaketa-tresnak, lankidetzaren kontseilua edo plangintza-jardunetako inplikazioa) berrikuspenera lagungarria izan liteke parte-hartze eredu aurreratuago bat sendotzeko, euskal lankidetzaren indartzea bultzatuta.

Finantzaketa-tresnei buruzko debatea

Euskal lankidetzaren ikuspegi jakin batean oinarrituta sendotu da, zeinean zeregin nagusia finantzaketa-tresnek duten, eredu "tresnazentriko" bat sortuz. Sarritan, finantzaketa-tresnek zehazten dituzte azkenean politika osatzen duten gainerako elementuei buruzko erabaki estrategikoak, hala nola plangintza, koordinazioa edo modalitateak eta lankidetzaren motak.

Hortaz, finantzaketa-tresnek, lankidetzaren politika egikaritzea ahalbidetzearekin batera, "geldotze" efektu bat eragin dute, euskal lankidetzaren potentzial guztia praktikara eramatea lortu ez duten neurrian: haren ikuspegiak, mobilizatutako baliabideak eta hura osatzen duten agenteen markoa. Eta hori ez zaie zor soilik marko hori osatzen duten tresnei, baita ere sor zaio eskariak eragindako eta norgehiagokan oinarritutako lankidetzaren gehiegizko indarrari, elementu horien gainean ezartzen baita finantzaketa-tresnen markoa.

Tresnazentrisimo nabarmen horren aurrean, erronka bikoitza du euskal lankidetzak: alde batetik, finantzaketa-tresnen egungo markoa berrikustea eta osagarri gisa, bestetik, tresna horiek lankidetzaren politika osoan duten egitekoa birplanteatzea, helburu gisa ikustetik bitarteko gisa ikustera igarotzeko, helburu estrategikoak lortzeko lagungarria izango den bitarteko gisa.

Gizarte-erlaketarako hezkuntzari buruzko debatea

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza errealitate gero eta konplexu, interdependente eta transnacionalizatuago honek eraginpean gehien hartzen duen ekintza-eremua da. Aldi berean, potentzial izugarria duen eremua da euskal gizarteari garapenaren arazo eta arazo horiek sortzen dituzten arrazoen aurrean ulerkuntza- eta eraldaketa-gaitasuna gehitzea ahalbidetuko duen tresna bat emateko.

Horretarako, erronka handiei egin behar die aurre Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak. Erronka horietako bat "Ipar-Hego begirada" gainditzea da gero eta izaera transnacionalizatuagoa duten

arazoei ekiteko garaian, eta, horrenbestez, tokian tokikoaren eta globalaren arteko loturak eta elkarrekintzak integratzen dituen begirada bat ere eskatzen dute.

Beste erronka garrantzitsu bat lankidetzaz-politikaz eta haren agentez haratago joatea da, eta horrela agente horiek Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan egingo duten proposamena beste agente batzuek eta beste politika batzuetatik egindakoarekin uztartu eta osatu ahalko da. Uztartze horretatik abiatuta errazagoa da begirada orokor bat eratzea, barne-hartzailea eta adi dagoena nazioarteko testuinguruan gertatzen diren aldaketei, garapenaren arazoan izan diren aldaketei, garapeneko nazioarteko agenda berriari eta biltzen dituen politikei, eta Garapenerako Politiken Koherentziak jardun-ardatz gisa duen garrantziari.

Dena den, erronka horiei Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzatik ekin beharrak zenbait esparrutan lan egitea eskatzen du, gogoeta espezifikoak beharko duten berezitasun batzuk dauzkaten esparruetan, eragile desberdinak hartzen baitituzte eraginpean eta tresna desberdinak behar baitituzte. Beste hainbat artean, nabarmentzekoak dira gizarte zibil antolatua, hezkuntza-komunitatea, ikerketa-komunitatea, erakunde publikoak eta, azkenik, iritzi publikoa eta komunikabideak.

Garapenerako Politiken Koherentziari buruzko debatea

Garapenerako Politiken Koherentziari buruzko debatea nabarmen areagotu da Euskadin azken hilabeteotan, eta lankidetzaz-agenteen zati handi baten diskurtsoaren atal nagusia izatera iritsi da.

Halere, aurre egin behar dion mugetako bat beste eremu batzuetara jauzi egin eta lankidetzaz-arloko bestelako agente eta politikoen diskurtso-ardatzean txertatzeko duen zailtasuna da. Era berean, beste muga bat ikus daiteke diskurtso-markoan islatutako aurrerapausoa ekintza politikora irmo eramaten ez dela egiaztatzean.

Horrela, aurrerapausorik ez dagoela ukatu gabe —hain artean 2016ko apirilean *Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Markoa* nabarmentzen delarik—, Garapenerako Politiken Koherentziaren sustapenak zailtasun handiei egiten die aurre orain ere, eta aurre egin beharko die gainera.

Besteak beste, nabarmentzekoa da Garapenerako Politiken Koherentziak berekin dakarrela gatazkak daudela agente eta politika desberdinen arteko ikuspegi eta interesen artean eta horretaz jabetzeko premia, eta gatazka horiek gainditzeko mandatu politiko argia behar da, baita zenbait mekanismo ere ibilbide-orri gisa. Era berean, Garapenerako Politiken Koherentzia zatikatutako kultura politiko eta administratiboari egin behar dio aurre, Garapenerako Politiken Koherentziak oinarritzat duen beharrezko osotasuna zailtzen duena. Garapenerako Politiken Koherentziaren nozioari berari buruzko ez-ezagutze handiari ere egin behar dio aurre, eta horrek zaildu egiten du ibilbide-orri bat zehaztea, Garapenerako Politiken Koherentziari eragin-agenda bat izateari utzi eta lan-agenda zehatz, operatibo eta epe laburrera ageriko emaitzak dituen izatea ahalbidetuko dion ibilbide-orria, hain zuzen ere.

Azken batean, euskal lankidetzaren berrikuspenaren hedadura debate horiek zehazteko eta garatzeko moduaren mende egongo dira neurri handi batean, guztiek ere elementu potentzialak gaineratzen baitituzte beren eraldaketa-gaitasuna gehitzeko. Funtsezkoa da, ildo horretan, debate horietakoren batean planteatutako aldaketen premiarekiko argitasuna eta kointzidentzia bihurtu beharra lortzea, aurrera egiteko benetako bultzada batean, integratutako logika batetik, aldaketa horiek adierazten duten norabidean.

3. Errealitate konplexu bat eraldatzeko gaitasun handiagoa duen lankidetzaren politika baterantz

Gaur egun, euskal lankidetzaren eredu tentsionatu egiten dute nazioarteko testuinguruko aldaketek zein Euskadiko lankidetzaren barruan irekitako debateek berek. Gero eta konplexuagoa den errealitatearen eraldaketa-gaitasuna handitzera eraman behar duen tentsioa.

Ugariak dira euskal lankidetzaren eraldaketa- eta erantzun-gaitasuna areagotzeko aukerak zehazten dituzten potentzialitate eta mugak.

Sei logikaren bidez laburbil daitezke potentzialitateak, praktikan euskal lankidetzak markatuta dituenak edo lortu nahiko lituzkeenak. Munduaren konplexutasunari eta garapenaren arazoei erantzuten dieten logikak dira, eta euskal lankidetzaren berrikusteko eta sendotzeko prozesuak bideratzeko potentzial handia dutenak.

- *Aldaketa estrukturalerako* logikak oinarritzat hartzen du garapenaren arazoak izaera estrukturalerako prozesuen bidez eratzen diren dinamika eta erlazioen emaitza direla, eta, horrenbestez, galderak klabe horretan izatera behartzen dute. Logika horretatik abiatuta, ez litzateke nahikoa izango garapenaren arazoen ondorioak eta agerbideak aztertzearekin arazoak eragiten dituzten arrazoen aurkako neurriak hartzen ez badira.
- *Maila anitzeko* logikak, bestalde, tokian tokioa ardatz duen lankidetzaren alde egiten du, estatukoari eta mundukoari lotutakoaren alde, eta aldi berean saiatuko da bermatzen tokiko gaitasunak sendotzeagatik ahaleginarekin batera maila anitzeko estrategietako artikulazioa ere gauza dadila. Hau da, logika horrek biltzen duena da toki-prozesuei eman beharreko laguntza eraldaketa-prozesu zabalagoen zati izatea.
- Logika *integralaren* bidez begirada zabaltzea proposatzen du euskal lankidetzak, garapen-prozesuak konfiguratzeko dituzten dimentsioen multzorantz zabaltzea ere, baita sortutako arazoei eman beharreko erantzunean eta giza garapen eta garapen iraunkorrerako politiken koherentziaren sustapenean egiteko bat daukaten politika eta agenteen multzorantz ere.

- Logika *unibertsalaren* bidez euskal lankidetzak “Ipar-Hego begirada” klasikoa gainditzea proposatzen du garapenaren arazoak eta asimetria globalak aztertzeko garaian, ez bakarrik diskurtsoan, baita ereduaren bertan eta lankidetzaren politikaren marko instrumentalean. Are gehiago, logika unibertsalak lankidetzaren politikaren gaineko begirada haratago eramateko bide ematen du, Euskadin dominatzailea den ereduak berak, barruan zein kanpoan, tokiko klabeen zein klabe globalean, eragindako inpaktu sozial, politiko eta ekonomikoak zalantzan jartzeko.
- Logika *kolektiboak* lan egiteko konpromisoa eta nahia islatzen ditu, agenteen artikulazio handiago batetik abiatuta, ekintza kolektibo global bat lortzeko, lankidetzaren politikaren oinarri sozial handiago bat lortzeko eta modu irmoagoan bideratzeko euskal gizartearen eraldaketaren alde.
- Azkenik, logika *solidarioak* berekin dakar euskal lankidetzak bere autonomia atxiki nahi duela giza garapen eta garapen iraunkorraz bestelako interes eta begiraden aurrean. Logika hori, nazioarteko elkartasunaren eta justizia globalaren ideian oinarritutakoa, euskal lankidetzaren ekintza guztien oinarri etiko eta politikoa izatera deituta dago.

Logika hauek ordenatu eta sistematizatu nahi dituzte, baita zabaldu ere, dokumentu normatiboen zati handi batean dauden printzipio, balio, ikuspegi eta nahiak, baita euskal lankidetzaren barruan dauden debateak ere. Horrenbestez, lankidetzaren hedadura eta haren eraldaketa-gaitasuna areagotzeko balio behar duten logikak dira.

Dena den, zenbait muga ere ikusten dira, logikek planteatutako potentziala aprobetxatzea eragotzi eta euskal lankidetzaren eraldaketa-gaitasuna ahultzen dutenak.

Nazioarteko inguruntetik eta garapeneko nazioarteko aldaketetatik zertxobait deskonektatutako erreferentzia-markoarekin, aribideko debateen zati handi bat praktikan mugatzen dituen lege- eta arau-esparru batekin, osotasunaren aldeko apustua gauzatzea saihesten duen zatikatutako kultura politiko eta administratibo bat izatearekin eta maila anitzeko klabeen ekintza kolektibo eta artikulatu baten gaitasuna mugatzen duen erakundearteko lankidetzarik ezarekin zerikusia duten mugak dira.

Muga horien zati handi batek euskal lankidetzaren garapenean erabat erabakigarria den faktore bati erantzuten dio: nolabaiteko “tresnazentrismoa” eragin duen finantzaketa-tresnen pisu handiegia. Euskal lankidetzaren ereduaren definizioaren garapenean pisu erabakigarria izan du, hasieratik izan ere, norgehiagokatik abiatuta eta eskaritik eraikitako logika batetik artikulatutako tresnen gaineko begiradak. Norgehiagokaren logikatik abiatuta garatu da administrazio-esparruaren, plangintza-logikaren eta euskal lankidetzaren parte-hartze eredu eta koordinazio-eredua. Horren emaitza eskariak eragindako lankidetzaren eta kausalitate-logika bat izan da, epe laburrera tresnetatik baldintzatutakoa, zeinak, praktikan, agenteen arteko elkarriketa ordeztu duen, lankidetzaren orientazio estrategikoa mugatuta.

Horregatik, beharrezkoa da muga horiek gainditzeko bidean aurrera egitea egungo tentsioa konpontzeko euskal lankidetzaren eredu eta haren eraldaketa-gaitasuna handitzearen alde. Horretara bideratuta dago azterlan honetan garatutako Esparru Estrategikoetan oinarritutako proposamena.

4. Esparru estrategikoetan oinarritutako proposamen bat euskal lankidetzaren berrikusteko

Lankidetzaren estrategikoago, indartuago eta eraldaketa-gaitasun handiagoko baterantz (pertsonek eta talde sozialen arazoak eta kalteberatasun-egoerei erantzuten dien eta aldi berean garapenaren arazoak taxutzen dituzten azpiegitura eta dinamiketan aldaketak eragiteko gaitasun gero eta handiagoa bere gain hartzen duen lankidetzaren) aurrera egiteko euskal lankidetzarako zenbait Esparru Estrategikotan oinarritutako proposamena egiten da.

Zazpi Esparru Estrategikoren inguruan ardatzen da proposamena, esparru horiek agenteen eta Euskadiko lankidetzaren politikaren egiten jakitea eta ibilbidea adierazten dutelarik, hau da, haien bereizgarriak indartzen saiatzen dira; aukeragune bat dira lankidetzaren politika zabaltzeko agente politiko eta sozial berria sartuta, eta aldi berean, beste agente eta politiko batzuen jarduna zabaltzea ahalbidetzen dute, giza garapen eta garapen iraunkorraren begiradatik, eta ikuspegi global eta internazionalista batetik; era berean, esparruak aukeragune dira izaera sistemikoko gaiak aztertzeko gobernantza global, maila anitzeko eta demokratikoaren logikatik. Irizpide horietan oinarritua, zazpi izan dira lan honetan identifikatutako Esparru Estrategikoak:

- Ekonomia solidarioa, birbanatzailea eta justizia sozialean oinarritutakoa bultzatzea
- Giza gaitasunak gehitzeko eta pertsonen eskubideak bermatzeko gai diren politika sozialak sustatzea
- Genero-ekitate, emakumeen ahalduntzea eta bizitzaren jasangarritasuna bultzatzea
- Ingurumen-jasangarritasuna, nekazaritza ekologikoa eta baliabide naturalen zaintza babestea
- Demokrazia eta toki-erakundeak sendotzea
- Kulturarteko elkarrizketaren eta herritartasun globaleko eskubideen aldeko apustua
- Muturreko kalteberatasunaren aurkako borroka

Esparru Estrategikoen ideia bereziki interesgarria da euskal lankidetzarako, barnean hartzen dituzten gaiengatik zein dauzkaten ezaugarriengatik, lan-logika berriei ekitea eta, modu integratuan, gaur egun dauden zenbait muga gainditzeko prozesuan aurrera egitea ahalbidetzen baitute.

Esparru Estrategikoen markoan egindako lanak azterketa interdependente eta integralagoa ahalbidetzen du errealitate konplexuaren aurrean. Esparru horien bereizgarri eta ezaugarriak konbinazio egokia sustatzen dute, pertsona kalteberenen arazoei erantzuna eskaintzen

jarraitzeko premiaren eta arazo horiek sortzen dituen bizikidetz-marko globalaren eraldaketak bultzatzeko erabaki eta estrategiak aztertzearen artean.

Esparru Estrategikoetan oinarritutako proposamen hori prozesu-logika batetik oinarritutako giza garapen eta garapen iraunkorraren aldeko lanari ekiteko apustua delako gertatzen da, neurri handi batean. Egungo euskal lankidetzaren markoak ahalbidetzen dituenak baino prozesu elkarrizketatu eta malguagoak dira, eta Esparru Estrategikoen izaerara, eskaera eta premietara eta ezaugarrietara egokitutako prozesuak, eta, azken batean, garapenaren egungo erronketara egokitutakoak.

Halaber, aukera berriak ireki nahi ditu proposamenak erlazio eta inbrikazio handiagoa sortzeko lankidetz-politikaren diseinuaren, egikaritzapenaren eta jarraipenaren artean. Horrela, Esparru Estrategikoetako lanetatik abiatuta, jautzia egin ahalko litzateke politikaren diseinuari, egikaritzapenari eta jarraipenari buruzko erabakien zati bat baldintzatzen eta mugatzen duten finantzaketa-tresna batzuek oso zehaztuta duten lankidetz-eredu batetik beste eredu batera, zeinean erabakiak modu artikulatu eta integratuagoan gertatuko diren, eta horrenbestez lankidetz-politikari gaitasun estrategiko handiagoa emango dion. Horrela, politikaren orientazio orokorrei buruzko erabakietatik abiatuta, elkarrizketako eta erabakiak hartzeko prozesuak artikulatuko lirateke, esparru estrategikoak zehaztera bideratutakoak, hedadura handiagoko lerroak eta helburuak identifikatzera, ondoren agente batzuen zein besteen artean planteatutako erronkei hobeto egokitzen zaizkien proposamenak lantzeko, Garapenerako Politiken Koherentziaren beharrezko sustapenaren ildotik.

Planteamendu horretatik, lankidetz-politikak bere gaitasunak gehitu ahalko lituzke eta baldintza hobeagoetan ekin bere marko instrumentalaren berrikuspenari eta agenteei buruzko debateari. Beste politika eta eragile batzuk ere hartzen ditu horrek eraginpean, esparru estrategikoetan identifikatutako helburuek gai sistematikoak izango baitituzte nahitaez jomugan, giza garapen eta garapen iraunkorrerako politiken adierazitako koherentzia hori eskatzen dutenak.

Horrela, desberdinak dira Esparru Estrategikoetan oinarrituta lan-proposamenak eraginpean hartutako lankidetzako euskal politika eraginpean hartzen duten elementuak.

Plangintzari dagokionez, esparru horietan oinarritutako proposamenak hainbat inplikazio ditu, eta ia gehienak bideratuta daude printzipio, lehenetasun eta helburuei buruzko identifikazioa eta erabakiak hartzeko prozedura prozesu jakin batzuetan askoz ere inbrikatuagoak egotera, hots, definitutako helburuak betetzearen mende dauden elementuak definitzeko eta martxan jartzeko prozesuetan: modalitatea eta lankidetz mota, egungo gaitasunak, marko instrumentala, parte-hartze ereduak eta erakundearteko lankidetzarako markoa.

Horrek, era berean, egungo plangintza-ereduan presentzia handia duten zenbait logika gainditzea eskatzen du, hala nola lankidetz-politikaren artikulazioa lehenetasun sektorial eta geografikoetatik abiatuta, gero eta aldakor eta interdependenteagoa den errealitatera zailtasunez egokitzen den logika bat baita.

Leheneste sektorialaren eta, bereziki, geografikoaren mugek, logika unibertsalarekin koherentzian, “herrialdeak” kategoriaz haratago jauzi egin beharri eusten diote garapenaren problematika ulertzerakoan, eta jardun modalitate guztien arteko bereizketa oso estankoa gainditzeko egokitasunari, eta zehazki garapenerako lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren artekoari.

Lankidetzaren politikaren elementu guztien konpartimentazioaren logikak marko instrumentalaren erabaki asko plangintza-prozesuetan sartzea saihesten badu, plangintza-jardunei ekiteko baliatzen den egungo denborazko logika ere muga garrantzitsua da. Plangintza-prozesuak oso mugatuta daude denboran eta logika konpartimentatu eta estankotik abiatuta pentsatutakoak dira, eta zenbait funtsezko debate —aldaketa estrukturalarekin lotutakoak hainbat gaitan, hala nola ingurumena, klima-aldaketaren aurkako borroka, produzitzeko eta kontsumitzeko era alternatiboak...— beste marko batera aldetzea saihesten du, marko instrumental, parte-hartze marko eta koordinazio-marko batera, oso zatikatua eta alde zuzenetik definitutakoa. Horren guztiaren emaitza gisa, plangintza-eredu bat dugu zeinak ez duen ahalbidetzen praktikara eramatea, esku-hartze zehatzetara eramatea eta, esanguratsuen, esku-hartze horien artikulaziora eramatea, euskal lankidetzaren barruko debate askok biltzen duten konplexutasuna eta izaera estrategikoa.

Planteamendu horrek eskatzen du nahitaez gainditu beharra ez soilik lau urtera mugatutako plangintza-zikloak, baita erabakiak plangintza-markoen hasierako faseetan kontzentratzeko egun dagoen logika ere. Horregatik guztiagatik, egokia dirudi plangintza-logika berriak pentsatzea —prozesu zabalagoetatik, partizipatiboetatik eta iraunkorretatik abiatuta—, inbrikazio handiagoa ahalbidetuko duten erabaki instrumentalaren artean, errealitate konplexu batera egokitze gaitasun handiagoa bultzatuz eta, azken batean, plangintza estrategikoago baterantz aurrera eginez.

Esparru Estrategikoetan oinarritutako proposamenak adierazitako muga horiek gainditzeko elementuak eskaintzen saiatzen da. Horretarako, parte-hartze prozesuak bultzatzeko premia planteatzen da, eta gunea sortzeko diagnostiko-, azterketa- eta elkarrizketa-jardunei behar bezala ekiteko. Hori guztia logika ireki eta iraunkor batetik abiatuta, eta testuinguruaren aldaketei adi dagoena, euskal lankidetzaren barruan gertatzen diren debateei atxikia, eta marko instrumentalarekin lotutako erabakiak orientatu eta integratzeko gaitasun handiagoarekin.

Horretarako, lankidetzaren helburuak, finantzaketa-tresnen markoa, lankidetzaren modalitateak eta motak, parte-hartze ereduak eta erakundearteko artikulazioa ezin izango liriteke modu itxian definitu plangintza-jardun mugatu batean, eta izaera orokor eta hurrengo lau urteetarako itxitako dokumentu batean iraulitakoan. Erabaki horiek, aitzitik, plangintza-prozesuaren beraren zati izan beharko lukete eta lanerako aldi guztian zehar bilakaerarako aukera izan Esparru Estrategiko batean.

Esparru Estrategikoetan oinarritutako proposamenak inplikazio oso garrantzitsuak ere gaineratzen ditu *parte-hartzearen* gaian. Hori horrela, parte-hartze marko sendo, askotariko

eta dinamiko baten bidez soilik garatu ahalko dira Esparru Estrategikoek biltzen dituzten potentzialitateak. Bere agenteen gaitasuna zabaltzeko eta lankidetzaren politikan bere egitekoa sustatzeko gai den marko bat. Euskal lankidetzaren eta haren indar eraldatzailearen ekintza-eremua zabalduko duen parte-hartze markoa, azken batean.

Ezaugarri horiek dituen parte-hartze marko batek erabakiak bi norabidetan hartzera eraman beharko luke. Lehenik, egungo parte-hartze orokorreko ereduaren berrikuspenarekin eta zabaltzearekin zerikusia duten erabakiak, eta bereziki Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluarenak: erakundearen eginkizunen garapena indartzeko haren kudeaketa- eta koordinazio-gaitasunak zabaltzera bideratutako berrikuspena; haren osaeraren berrikuspen bat ahots eta begirada guztiak gehitzeko, horrekin lankidetzaren politikaren inguruko debateak aberastuta; eta debate ideologiko bat lehenestea ahalbidetuko duen berrikuspen bat Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak lankidetzaren politikari egin dakioken ekarpena hobetzeko.

Eta, bigarrenik, Esparru Estrategiko guztietan lana artikulatzeko erabakia marko eta prozesu parte-hartzaileetatik abiatuta, parte-hartzea eta agenteen arteko elkarrizketa baitira funtsezko elementuak euskal lankidetzaren eragileen arteko elkarrizketa-prozesuan sortutako erabakien sare guztia ehuntzeko. Horrenbestez, Esparru Estrategikoek elkarrizketa horretara egokitutako egitura eta antolamendu-eredua eskatzen dute, eta helburuak lortzera bideratutako erabakiak hartzea ahalbidetuko dute. Horretarako beharrezkoa izango da Esparru Estrategiko bakoitzean formalitate-maila egokia, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluarekin lotzeko modua, erabakien sistema edo hasierako osaera definitzea ahalbidetzen duten erabakiak hartzea. Hori guztia agenteen arteko elkarrizketa iraunkorra eta azterketa guztiekiko iragazkorra izango dela bermatzeko, bai Esparru Estrategikoen zehaztapenean, bai helburuen identifikazioan eta helburu horiek betetzera bideratutako estrategia eta ekintzen plangintzan ere.

Esparru Estrategikoen proposamenak eraginpean hartzen ditu, halaber, *finantzaketa-tresnak*, tresna horien definizioari eta kudeaketari buruzko inplikazioekin, baina baita lankidetzaren politika berean tresna horiek duten egitekoaren ikuskerari buruz ere.

Finantzaketa-tresnen egungo markoaren funtzionamenduari dagokionez, erronka ugariri egin behar die aurre euskal lankidetzaren berrikuspen- eta sendotze-prozesu batek. Besteak beste, nabarmentzekoa da egungo diseinuan erakundeak duen gehiegizko zurruntasuna eta burokratizazioa gainditu beharra, eta horrek erakundearen beraren arautegia zein finantzaketa lortzeko, haren jarraipena egiteko eta justifikatzeko prozesuak hartzen ditu eraginpean. Azken batean, finantzaketa-tresnek euskal lankidetzaren indar estrategikoaren gehitzearekin zerikusia duten erronkak dira.

Baina Esparru Estrategikoen proposamenak ez du soilik tresnen funtzionamendua eraginpean hartzen, bere izaerak ere euskal lankidetzaren erantzuteko gaitasuna mugatzen baitu aldaketa-prozesu sakonean dagoen testuinguru baten erronken aurrean. Zehazki, tresnen zenbait bereizgarriak, hala nola haien dimentsioak, haien fokalizazioak garapen endogenoko toki-prozesuetan —loturarik gabe maila anitzeko izaera duten dinamika estrukturalekin—, marko

logikoaren metodologiak ezarritako kausalitate sinpleko logikak, besteak beste, mugatu egiten dute aldaketa estrukturaleko logikari, maila anitzekoari, osotasunekoari, unibertsaltasunekoari eta kolektibokoari erantzuteko duen gaitasuna.

Gogoeta horren ondorioz, planteatzen da egungo finantzaketa-tresnak aztertzeke eta egungo gaitasunei egokitutako eta helburu estrategikoei erantzuna ematera bideratutako tresnak aztertzeke eta ebaluatzeke premiarekin batera beharrezkoa dela gogoeta bat —tresnen izaeratik eratorritako mugen ildotik— lankidetzaren politikan duten egitekoari buruz. Horregatik, izaera estrategikoa duten finantzaketa-tresnen marko baten aldeko apustua ez litzateke eskusiboki kontzentratu behar tresna horien funtzionamendua hobetzeko soluzioen bilaketan. Aitzitik, beharrezkoa dirudi tresnen azterketak, berrikuspenak eta diseinuak plangintzaren markoan eta politikaren gainerako elementuetan hartutako erabakiekin izan beharreko inbrikazioa lehenestea.

Idea horrek berekin darama fokua aldatzeke premia eta instrumentu baten bidez ez lortu nahi izatea “Ipar-Hego begirada” gaintzea, aldaketa estrukturaleko prozesuak sortzea, epe luzeko prozesuei laguntzea, subjektuak klabe transnasionalean sendotzea edo gobernantza demokratikoko eta maila anitzeko erakundeak sendotzea. Tresnen hobekuntzari dagokionez, egokiago izan liteke helburuak ondo identifikatzea tresnak haietarantz modu artikulatuan bideratzeko. Planteamendu horrek tresnen ikuskeran eta diseinuan logika aldatzeke atea zabaltzen du, eta haiei buruzko erabakien zati handi bat lehentasun estrategikoen, gaitasunen eta lankidetzaren modalitateen definizioan integratzera, baita erakundearteko parte-hartze marko eta lankidetzaren markoan ere.

Ildo horretan, Esparru Estrategikoetan oinarritutako proposamena finantzaketa-tresnei buruz erabakiak esparru horretako bakoitzean agenteen arteko elkarrizketaren bidez onartutako erabakien marko zabalagoan integratzean kontzentratzen da, helburuen, gaitasunen eta emaitzen arteko koherentzia handiagoko eredu baterantz aurrera egiteke errealitatea gehiago eraldatzeko, eta betiere burutu beharreke lankidetzaren modalitate eta mota posible guztiak agortu gabe.

Azken batean, finantzaketa-tresnen definizioan logika birplanteatzeko lanaren alde egiten da bi funtsezko arrazoiengatik. Alde batetik, tresna horiek oro har euskal lankidetzaren helburu, modalitate, mota eta gaitasunetarako eta bereziki Esparru Estrategikoetara hobeto bideratu eta egokitzeko. Eta, bestalde, tresnen arteko interakzioa nabarmentzen du, proposamenaren gako ez baitago soilik egokienak direnen identifikazio eta definizioan, baizik eta elkarrizketa eta artikulazioko gune bat sortzean, haien arteko konbinazio estrategikoago bat ahalbidetzen duena. Gako horrek ahalbidetzen du aldaketa estrukturaleko, osotasuneko, maila anitzeko, unibertsaltasuneko, ekintza kolektiboko eta elkartasuneko logiketan oinarritutako lankidetzaren onartzea. Horrenbestez, arazoei erantzuteke eta errealitate konplexu bat eraldatzeko gaitasun handiagoa izango duen lankidetzaren.

*Erakundearteko lankidetz*a ere zuzenean hartzen du eraginpean Esparru Estrategikoen garapenean oinarritutako proposamenak, ikuspuntua lankidetza-marko dinamikoago, estrategikoago eta egonkorragoa egiteko zabaltzea proposatzen duen neurrian.

Horrela, baliabideak gehiago arrazionalizatu eta administrazio-prozedurak eta informazio-sistemak gehiago harmonizatzetik abiatuta eraginkortasuna eta efizientzia bilatzearekin batera, gai globalei buruzko erantzukizun partekatua aldarrikatzen da. Horretarako proposatzen dira, Esparru Estrategikoen markoan, elkarrizketarako guneak, ekintza kolektibotik galdera artikulatzea arazo konplexuen aurrean, agente guztien lankidetza-logikatik soilik eman ahalko baitzaie erantzuna.

Horrela, Esparru Estrategikoetan lan-planteamendua gida bat izan liteke erakundeen arteko beharrezko elkarrizketa artikulatzeko. Horretarako, egokia da euskal administrazio guztietako agentea oso hasiera fase batetik sartzea Esparru Estrategiko guztietako lan-taldeetan. Horrela, erakundearteko elkarrizketa plangintza-prozesuaren hasierako fasera aurreratuko litzateke eta Esparru Estrategiko bakoitzeko lan-egitura guztian zehar atxikitzeko aukera irekiko litzateke, eta, horrenbestez, politikaren ziklo osoan zehar ere bai.

Planteamendua, hasierako elkarrizketa horretatik abiatuta, agenteen arteko debate guztia helburuen definiziora eta betetzera bideratzean datza, eta horretarako modu integratu eta koherentean artikulatu behar dira elkarrizketa horretan parte hartzen duten eragile guztiek eskueran dituzten baliabide, gaitasun eta tresna guztiak.

Erakundearteko elkarrizketa bereziki esanguratsua bihurtzen da jardun-ardatz honetan, zeinean gune garrantzitsuak zabal daitezkeen lanaren banaketarako zein osagarritasunerako, finantza-baliabideen ekarpenean zein lankidetza modalitateen eta tresnen identifikazioan eta ezarpenean eta gaitasunen zabalkuntzan.

Baina erakundearteko lankidetzaren xedea ez da soilik helburuak administrazio guztien lankidetza-politiken markoko ekintzen bidez betetzea. Erakundearteko lankidetza horrek sarritan eskumenak partekatzen dituzten eta/edo ekintza politikoaren eremu partekatuak eraginpean hartzen dituzten jardunak garatzen dituzten erakundeen arteko politiken koherentzia-arloko lana ere eragin ahalko luke. Horixe da hezkuntza-politikarekin, ingurumen-politikarekin, politika sozialekin, berdintasun-politikarekin, politika ekonomikoekin eta enplegu-politikekin, edo beste hainbat gairekin —hala nola erosketarekin eta kontratazio publikoarekin— lotutako gaien kasua. Esparru Estrategiko guztiek eratzen dituzten egitura, dinamika eta agente askotarikoak eraginpean hartzen dituzten ekintza politikoko esparruak dira.

5. Zenbait erronka euskal lankidetza berrikusteko eta sendotzeko

Azterlan honetan aztertutako jokalekuaren eta Esparru Estrategikoen garapenean oinarritutako proposamenaren emaitza gisa, euskal lankidetzak zenbait erronka garrantzitsuri egin behar die aurre bere berrikuspenari eta sendotzeari ekiteko.

Garrantzi handiko erronka batek euskal lankidetzak bere gain hartu beharreko egitekoarekin du zerikusia, gero eta erantzun integralago eta sistematikoagoak eskatzen dituzten aldaketa sakonen testuinguruan. Horrenbestez, arazoan aurrean erantzuteko gaitasuna sendotzea eskatzen duen erronka da, baita gaitasuna ere arazo horiek sortu, erreproduzitu eta larriagotzen dituen ereduaren eraldaketarako ekarpena egiteko. Hori guztia euskal marko sozial eta politiko propioaren eraldaketarako egiteko gero eta handiagoarekin uztartuta giza garapen eta garapen iraunkorraren aldeko begirada gehiago integratzeko, eta horrek gaitasun handiagoak eskatzen dizkie lankidetz-agenteei —eta politikari berari— palanka politiko gisa jarduteko.

Ez dirudi posiblea denik erronka horri erantzutea euskal lankidetzaren berrikuspen- eta sendotze-prozesu sakon bat burutzen ez bada. Ildo horretan, garrantzitsua da euskal lankidetzak bere historian zehar garatutako bereizgarri eta gaitasunen batzuk sendotzen dituen berrikuspen-prozesu bati ekitea, aldi berean ahalbidetuta haren potentzialitate eta xede-logiken zati handi bat egia bihurtuta. Ildo horretan, hiru elementu dira funtsezkoak euskal lankidetzaren berrikuspen-eredua planteatzeko garaian: historikoki euskal gizartean eta haren udalerrietan presentzia izan zuen internazionalismo solidarioa balioan jartzea eta bultzatzea; politika publiko baten eta garapen endogenoko prozesuei laguntzen espezializatu diren agenteen kolektibo baten balio bereizgarria; eta erantzunkidetasuna ekintza kolektibo globalean eta gobernantza global, maila anitzeko eta demokratiko baten eraikuntzan.

Euskal lankidetzak sendotzeko beste elementu garrantzitsu bat lankidetzak-eredu estrategikoago bat martxan jartzean datza, eta horrek gaur egun eredu instrumentalegia eratzen duten mugetako zenbait gaitasunak inplikatzeko du, eredu horrek lankidetzaren gaitasuna ahultzen eta zenbait agentek garatu ahalko luketen potentziala murrizten duelarik. Eredu instrumentalaren gaitasunak horrek euskal lankidetzaren gaitasunak gehitu beharra eskatzen du, agente guztien definizio estrategikoago bat politika osorik hartuta eta, bereziki, politikaren funtsezko elementuen berrikuspen integratu bat: dagokion plangintza-esparrua, parte-hartze eredu, finantzaketa-tresnen egitekoa eta funtzionamendua, eta erakundearteko lankidetzak aztertze baliatzen den logika.

Norabide horretatik doa, hain zuzen ere, Esparru Estrategikoen proposamena euskal lankidetzaren erantzuteko eta eraldatzeko gaitasuna sendotzeko. Agente eta indar gehiagoetara iristeko irekitako proposamena, gaitasunen sortzaile eta ugaltzailea, jakintzaren sortzaile eta jakintzarekiko iragazkorragoa, koherente eta integratuagoa, indartutako parte-hartze markoarekin, eta koordinatuagoa ere bai. Klabe horretan, kontuan hartzen da Esparru Estrategiko horiek gune egokienak direla politika taxutzen duten elementuek epe laburrerako elkarrizketa batean integratzea lortzeko, jomuga gisa hartu beharreko lankidetzak-eredua argi

eta garbi markatzen duena, eta ez prozesu disruptibo batetik abiatuta, baizik eta trantsizioan, elkarrizketan eta esperimentazioan oinarritutako batetik abiatuta.

Horrekin lortu nahi da ikuspegi bat proposatzea modu integratuago eta estrategikoagoa ahalbidetuko duena euskal lankidetzaren baliabideak, gaitasunak, agenteak eta erremintak artikulatzea. Ikuspegi horretatik, zazpi Esparru Estrategiko aurreratzen ditu proposamenak, langune gisa kontuan hartutakoak, eragin-gaitasun handiagoko prozesuak garatzea ahalbidetzen dietenak errealitatea zehazten duten dinamika eta agenteei, azterketarako eta ekintzarako marko egokiak diren neurrian, eta egiturak biltzeko gai direnak, marko horiek nabarmendu behar direlarik elkarkidetzaren globaleko eredu berri bat taxutzeko. Justizia globala, giza eskubideak, genero-ekitatea eta emakumeen ahalduntzea, ingurumen-jasangarritasuna, toki-gaitasunen sendotzea, muturreko kalteberatasunaren aurkako borroka, kulturarteko elkarrizketa eta herritartasun globalaren eskubideak bermatzen dituen ereduak.

Horrela, Esparru Estrategikoek errealitatearen azterketa sakona moldatzea ahalbidetzen dute, hainbat eragileren artean artikulatutako elkarrizketa eta errealitate konplexu eta dinamiko bati erantzutera bideratutako erabakiak hartzeko prozesu bat. Hortaz, euskal lankidetzaren eraldaketa-gaitasuna sendotzeko eta gehitzeko potentzial handiko esparruak dira.

Esparru Estrategikoak garatzeko elkarrizketa-prozesu zabal, ireki eta egituratuak abiarazteak duen garrantzia nabarmendu behar da. Esparru Estrategikoen markoko prozesu guztietan hartutako erabakiak artikulatzeko ardatz-lanak egiten dituen elkarrizketa estrategikoa. Era berean, garrantzitsua da esparru horietan lanaren garapenari ekiteko premia planteatzea epe luzerako ikuspegi batetik begiratuta eta trantsizio-prozesu batetik abiatuta, abiarazteko baldintza politiko, sozial eta teknikoak sortzeko gai dena.

Lankidetzaren politikaren sendotzea helburu duten erronka guztiek lankidetzak Euskadin duen garrantzi sozial eta politikoa handitzeko premia uzten dute agerian, lankidetzaren eraldaketa globaleko indar egiteko premia. Horretarako, lankidetzaren agenteek euskal gizartearen beraren imajinario kolektiboa eta nortasuna eraldatzeko erronka itzelari egin behar diote aurre. Ildo horretan, debate sozialaren garapena giza garapena eta garapen jasangarriaren ikuspegi, interes eta helburuak debate politikoan agertzearekin uztartu behar da, baita agenda politikoan eta egituretan eta erabakiak hartzeko gune politikoetan. Ez soilik inperatibo etikoagatik, baita arazoaren aurrean ekintza kolektibo eta maila anitzeko bat artikulatzeko premiaren aurreko erantzukizun politikoagatik ere, logika horretatik soilik aztertu ahalko baitira arazo horiek. Horrenbestez, inperatibo politikoak izan beharko luke garapen globalaren arazoak euskal politikaren erdigunean jartzea eta aurre egitea, politika publikoetatik eta hainbat gunetan duen eraginetik, gobernantza global, maila anitzeko eta demokratikoko eredu baterantz, artikulazio politikoko marko gisa bizikidetzaren globaleko etorkizuneko eredu demokratiko batean.

Erronka horiekin batera, planteatutako zenbait erronkak politika bera eta lankidetzaren agenteak gainditzeko dituzte, eta gizarte osoa eta Euskadiko komunitate politikoa hartzen dute eraginpean. Horixe da Giza Garapen eta Garapen Iraunkorrerako 2030 Euskal Agenda baten

bultzada, aukera baita egungoaz oso bestelako bizikidetzaz globaleko eredu bat egiteko, giza garapen eta garapen iraunkorraren bilaketan oinarritutako ereduak.

Euskadik eta haren agenteek 2030 Agendaren inplikazio eta potentzialitateekiko begirada propioa eratzeko erronkari egiten diete aurre. Hortaz, erronka garrantzitsua da agendaren irakurketa estrategikoa artikulatzea, agenda bere aukera politikoko gune gisa zabaltzean oinarrituta. Agenda bera zehazteko aukera, ikuspegi kritiko batetik zabaltzeko, bere muga identifikatuta eta bere potentzialitateak lehenetsita. Garapenaren arazoan aurrean begirada alternatibo eta eraldatzaileak gehitzea ahalbidetzen duen irakurketa, lankidetzaz-politika zabaltzetik eta eguneratzetik abiatuta. Baina euskal klabean ageri zaigun aukera politikoa ere bada, Euskadiren estatuko eta nazioarteko agenda politikoa zabaltzeko eta giza garapen eta garapen iraunkorra lehen mailako mandatu politiko bihurtzeko. Hau da, garapen-eredu iraunkor, ekitatibo eta bidezkoago baterantz aurrera egiteko aukera, eta, hortaz, giza garapen eta garapen iraunkorrek koherenteagoa izango den eredurantz. Horrenbestez, kolektiboki eraiki beharreko irakurketa bat, bere izaera unibertuala, integrala eta maila anitzekoa kontuan izanda.

Lan honetan proposatutako azterketak eta proposamenek muga eta zailtasun ugari egin behar diete aurre martxan jarri ahal izateko. Askok aztertutako izan dira eta azterketan bertan bildutako elementuen zati izan dira. Beste batzuk, ordea, munduak bizi duen konplexutasun handiko eta zalantzazko unearekin dute zerikusia. Hori dela-eta, lan honek, logika proposatzaile batetik begiratuta, duintasuna eta erantzukizuna eskatu nahi ditu, gauzen gaur egungo egoera zalantzan jarri eta tokiko erantzun eta erantzun globalak planteatzeko, deriba autosuntsitzailean murgilduta dagoen mundu batean. Hortaz, euskal gizartea eta gizartearen ordezkari politikoak eraginpean hartzen dituen eskaria da, indarrez, ausardiaz eta ikuspegiarekin jardun dezaten, ez soilik jardungune bat zaintzeko munduak bizi dituen arazoei erantzuteko, baizik eta erantzun ahalik eta irmoenak eskaintzeko, eta hori kolektiboki egiteko, ekintzen eta agenteen integrazioetik abiatuta. Horrenbestez, agenteek berek dute hitza zer erantzun eskaini erabaki eta adierazteko.